

Sare lana ikuspegi feminista batetik

chra alias Christina Nemeč

Emakume naizen aldetik, ez nioke nire musikari femenino deituko. Genero asko aldarrika daitezke, baina gure gizarte erreprimizaileak "emakumea" edo "gizona" izatera behartzen gaitu. Emakumeak eta inon egokitzen ez direnak eskubide berdinak izatetik urrun daude, eta hala ere estereotipatzea borrokatzen dugu! Horregatik da ikuspegi feminista batetik sarean lan egitea nire xede kutuna.

Musika medio ideala da xede horiek iristeko. Ez da entretenimendua bakarrik, nahiz eta hori ere baden, inondik ere. Landetako herrixka batean bizi naizela, zer egingo nuke nik Blondie, Joan Jett, Laurie Anderson, Lydia Lunch, Kim Gordon, Siouxsie Sioux eta askoz gehiago ez banitu? Etxetik alde egiten, gauza berriak probatzen eta modelo baten gorputza ez nuela zertan eduki ulertzen lagundu zidaten. Baxua jotzen hasi nintzen, eta oraindik ere egiten dut, baina bien bitartean jatorri digital eta analogikozko soinuak dira nire hizkuntza. Zarata abstraktutik elektropoperaino, baladetatik heavy metaleraino: frekuentzia baxuak gorputza ukitzen. Ezinezkoa da aurre egitea!

Pista: hectic night at the club (hitzak eta musika: chra)

Egunsentira arte egon gara zabalik
dio neskak
edo ez zuen taxi baterako dirurik
edo trago bat hartzera joan behar zuen

dig me out

etxera itzultzen ez den gauak dira okerrenak
benetan lan egiten du berandu arte?
Gau oso mugitua izan dugu klubean
benetan lan egiten duzu berandu arte?
a, ez neukan taxi baterako dirurik
hunkitu egiten nau
haren energiak eta ekimenak
dagoeneko ohitu egin da
bat-batean zera esan du:
Gau oso mugitua izan dugu klubean, laztana!

chra (female:pressure, Vienna), alias Christina Nemeč,
musikaria da, idazlea, DJ eta SV DAMENKRAFT eta
ADIEUmopedSALTUrock!! taldeetako kidea. chra-k Orlanding the
Dominant ikuskizun queer burleskoan ere parte hartzen du.

www.myspace.com/svdamenkraft